



XXXXX

OSASUN SAILA

(Euskal osasun zerbitzua)

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko ebazpenena: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren urtarrilaren 21eko 27/2011, urtarrilaren 21eko 28/2011 eta urtarrilaren 21eko 29/2011 Ebazpenak, zeinen bidez argitaratzen baita Osakidetzak-Euskal osasun zerbitzuak 2008an deitutako hautaketa-prozesuko destino hutsen zerrenda, destinoa Lehen Mailako Atentzioko Pediatria Unitateetan (lanpostu funtzionala: Fakultatibo Espezialista Ospitaleko Pediatriako Medikua) izango duten Fakultatibo Mediko eta Teknikoen lanbide-taldeko medikuaren kategorian (lanpostu funtzionala: Familiako Medikua).

Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatzen duen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 105.2 artikulua ezartzen duenez, herri-administrazioek beren kabuz edo interesdunak eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete beren egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak.

2011ko urtarrilaren 27an web orrian argitaratutako aipatu ebazpenetan era horretako akatsak antzeman direlarik, zuzendu egiten dira:

Hirugarren erabakian,


Esaten du:

- Aipatutako kategorietako destino hutsak aukeratu behar dituzte. Horretarako, eskainitako destinoen zerrenda alfabetikoa eransten da. Erantsitako dokumentu hau behar bezala beteta eta erregistratuta bidali behar da Erakunde Zentraleko Giza Baliabideetako Zuzendaritzara (Araba Kalea, 45, 01006 Vitoria-Gasteiz).

Esan behar du:

- Aipatutako kategorietako destinoak aukeratu behar dituzte. Horretarako, Osakidetzako web orrian dagoen eskabide-eredua bete behar dute.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko urtarrilaren 28an.



Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendaria.

TOMAS MENDOZA CARNICERO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO
SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO